

**Zientzia lankidetzan (2006-2007 ikasturtea):
PROIEKTUAREN BALORAZIOA**

Sarrera

Proiektua Zarautz eta Zumaiako institutuko DBH4-ko ikasleek eraman dute aurrera, aukeragaiaren orduak ("Zientzia Tailerra") erabiliz.

Sei talde izan dira: talde bakoitzean 4 ikasle zeuden, 2 Zarauzkoak eta 2 Zumaiakoak. Talde bakoitzak energia-mota bat landu du. Lana errazteko zenbait baliabide aukeratu eta eskura eman zaie, webgunean argitaratuta:

<http://www.zarautz.com/rafamunoa/Ikerketak/Lankidetzaz%20zientzian.html>

Proiektuaren diarioa (eguneroko egin denaren laburpena) webgunean argitaratuta dago:

http://www.zarautz.com/rafamunoa/Ikerketak/Lankidetzaz_2006_2007/Lankidetzaren_diarioa.pdf

Bi etapa nagusi egon dira: 6 ordu ikastetxeko ikasleak isolatuta lanean aritu dira eta azken 4 ordutan elkartrukaketak egin dituzte.

Balorazioa

Proiektuak alde positiboak eta negatiboak izan ditu; neurri batean hori normala da lehen aldiz burutzen genuelako horrelako proiektu bat.

Nire ustez hauek izan dira aspektu aipagarrienak:

Aspektu positiboak	Hobetu beharreko aspektuak
<p>Ikaslearen hasierako motibazioa: Hasierako motibazioa handia da, zeren bere lana beste batzuz baloratuko dute. Dena den, hasierako motibazio hori mantentzea ez da erraza.</p>	<p>Erabilitako aspektu teknologikoak: Ikasleen lana PowerPoint formatuan burutu da, baino elkartrukaketak egiteko ez dugu formatu egokirik aurkitu: Google-ren aukera dokumentuak konpartitzeko ezta blogak ez dira nire ustez tresna egokienak PowerPoint fitxategiak konpartitzea ez duelako errazten</p>
<p>Esperientzia: Ikasleak lankidetzaz-esperientziak bizi behar ditu, ikasketak eta lanaren aspektu garrantzitsuak delako.</p>	<p>Proiektuaren ebaluaketa: Oso zaila da ikasleak nola ikasten duen gehiago baloratzea (bakarka ala lankidetzaz): ikasketaren kantitatea eta kalitatea baloratzea, alegia.</p> <p>Hori garrantzitsua da, zeren lankidetzazaren baliagarritasuna sartzen da jokuan.</p>

Nire ustez, proiektu honetan produktua (ikasleek sortzen duten materiala) bigarren planoan geratu behar du; garrantzitsuagoa da ikaskuntza-prozesua.

Planteamendua ezberdina da enpresetan eta Hezkuntzan: enpresetan lana bana daiteke eta azkenean lortu produktua lortzeko. Honela, denbora aurrezten da eta produktua lortzen da.

Hezkuntzan, berriz, ikaslearen ikaskuntza-prozesua da garrantzitsua, produktuak ez du horrelako garrantzia nire ustez (esate baterako, aurten lortutako produktuek esanahi gutxi dute hurrengo urteko ikasleentzat; hauek berriro egin beharko lukete produktua, ikasketaren esperientzia izateko).

Hurrengo kurtsoari begira

Lankidetzan baliagarria izateko, hurrengo urteko proiektuan zenbait hobekuntza eman beharko lirateke:

- ikasleen elkar-ezagutza (oztopo legalak daudela kontuan harturik). Garrantzitsua da ikasleak elkar ezagutzea, motibazioa handitzeko.
- produktu teknologikoak hobeto erabili: fitxategiak elkartrukatzeko aukera egon behar da
- proiektu errealagoak. Proiektuak ikasleen interesekin bat egin behar du (edo gutxienez hurbildu egin behar dira)
- ikasleen ebaluaketa. Ikasleak ebaluatu egin behar dira, proiektuari seriotasun handiagoa emateko.

Hauek dira, gutxienez, hemendik egiten dugun balorazioa.